



Euskararen 9. Maratoia hasteko atzera kontua.- Ordu batzuk besterik ez dira geratzen Euskararen 9. Maratoiari hasiera emateko. Irudian ikusten den bezala, Okendo plazan karpa eta txosna bere lekuan daude dagoeneko. Zortzikoteko kideak, laguntzaileak eta herritarrak guztia martxan egoteko irrikan daude. Oholtza eta azken ukituak falta dira, baina bihar goizeko 8:00etarako guztia prest egongo da Lasarte-Orian euskararen jaialdi handiak eztanda egin dezan. 40 ordutan adin guztietako herritarrek gozatzeko ekintzak izango dira Okendo plazan eta bere inguruetan. Aurten gainera, Maratoia 40 eguneko erronkaren aurrekari eta hasiera puntu izango da. Igan-de arratsaldean, Ahobizi talde batek lehen testigua hartuko du eta asteburu berezi honetako izpiritu eta indarra, abenduaren 3a, Euskararen egunera arte luzatuko da gure herrian. Antolatzaileek gogoratu legez, Ahobizi eta Belarriprestak behar dira erronka aurrera eramateko. Euskararen Maratoian ere izena emateko aukera izango da Okendo plazan egongo den I-gunean. Animatu eta irten armairutik!! Izan zaitezte Ahobizi edo Belarriprest!!!

3 KULTURA

Ane Labakak Laboa katedrako laguntza eskuratu du

Ane Labaka Mayoz herritarrak masterreko proiektua gauzatzeko Mintzola Ahozko Lantegiak eta Mikel Laboa Katedrak elkarlanean duten laguntzetako bat eskuratu du. Proiektu lanean euskal kulturaren genero sisteman oinarritzen den umorea aztertu eta bertsolaritzan duen isla ikerituko du.



4 GIZARTEA

Kolore arrosa bularreko minbiziaren ohorez

Asteazkenean, Bularreko Minbiziaren nazioarteko eguna ospatu zen Lasarte-Orian. Udaletxe berriko balkoian lazo arrosa izan zen egun guztian zehar eta herriko banku bat arrosaz margotu zen. Katxalineko kideak ere azokan izan ziren lazo arrosak eta euren lanari buruzko informazioa eskaintzen.

**Hurrengo
TXINTXARRI-an
Euskararen 9.
Maratoiko
errepasoa eta
Lasarte-Oria
Bai! krosari
buruzko infor-
mazioa eskai-
niko dugu.**

LASARTE-ORIA

BEZEROAREN HAMABOSTALDIA URRIAK 17-TIK 30-ERA

**EROSI ATERPEAN ETA SARI
ZUZENAK ESURATU.
300€KO TXEKEA ERE LOR DEZAKEZU**



Neure kabuz



Jexux Artetxe

Urtebetetzea

A tzo izan zen ETAk terrorismoa Autzi zueneko bosgarren urtebetetzea. Ez dakit egun hartakoa gertaera historikoa bailitzan hartu beharko genukeen. Historian letra larriz sartu behar dena, dudarik gabe, gure herriak ETaren doilorke-riagatik jasandakoa dela iruditzen zait. "Ni hiltzera noa... Eta ez noa pozik, bizitza ospindu didazue, bizitza erremindu didazue", esan zien Xabier Letek hil bezperan. Guztiz bat nator gure olerkari handiarekin. Terrorismoak historian sartu behar badu, euskal kondairaren orrialde beltzetan egon beharko luke.

Indarkeria, inolako zilegitasunik izan ez duen biolentziari deitu ohi zaio. Ba, indarkeria ezberdinen pean bizi izan gara hamarnaka urteetan. Denen artean, ETA izan da amore ematen azkena. Ekintza guztiak amaitzen zituela adierazten zuen agiriaren urteurrena dela eta, jende askoren iritzia irakurri ahal izan dugu, azken egun hauetako egunkarietan. Gehienak pozarren agertu dira erabaki hark ekarri dituen ondorioekin. Bakezale guztiok hartu genuen lasaitu ederra azpimarratu dute. Ezin ukatu hori dela taxuzko edonork atera genezakeen atarramenturik argiena. Egoerak atzera bueltarik ez duela esaten denean, sinets egiteraino.

Hala eta guztiz, kontrakoak ere entzun izan ditugu azken astean. Hau adibidez: "Nork esan dezake hurrengo bost edo hamar urteetan jendearen bihotzetan egon daitekeen indarkeriaren sugarrak berpiztuko ez direnik, eta belaunaldi berriek indarkeriara berriro joko ez dutenik?". Oso grabea litzateke nazioarteko aditu bezala ari den Currin jaunak BERRIA egunkariari esan dizkionak egia bihurtuko balira. Hala ere, oraindik indarkeria zale diren horiek ez dutela haizea bizkarretik edukiko deritzot. Ikusitakoak ikusi, bizitakoak bizi, herritar gehiengoa ez dut uste bakea azpi-jaten ari direnei begira ezer egin gabe geldirik egongo litzatekeenik.

Zorion agurrak



Gorka

Zorionak Gorka! Muxu handi bat familia eta lagun partez!



Marian

Zorionak Marian!!! oso ondo pasa zure urtebetetzean!!! 40 muxu zure lagun partez...



Ailitz

Zorionak zure lehen urtebetetzean sorgiña! Askok maite zaitugu. Muxu potolo handi bat aita eta amaren partez.



Silvia

Zorionak Polita!!! muxu handi bat familiaren partetik!!



Amaia

Zorionak amaia!!! oso ondo pasa zure urtebetetzean!!! muxu potolo bat zure lagun partez...



Nerea

Zorionak etxeko ondo pasa zure urtebetetzean!!! muxu bat!



Siena

Zorionak, gure txiki- txo polita!!! Askok maite zaitugu! Aita eta Ekai.



Haizea

Zorionak!! Inoiz ez dakigula falta gure ametsak ehuntzeko hariarik. Maite Zaitugu.



Aitor, Ibon eta Nadia

Hamaika muxu oso handi aita eta familia guztiaren partez. Zorionak!!!



Maialen

Zorionak!! Onda pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik!



Xabi

Zorionak hacker!! Ttazure kide guztion izenean besarkada bat Mendebaldeko erreinuko informatiko onenari.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Pisua alokairuan Oztaran plazan. 3 logela, sukalde eta komun berritua eta igogailua du. Leiho guztiak kanpora ematen dute. Gerturatu eta ikusi, aukera paregabea. Prezioa adostu daiteke. Harremanetarako, 625 709 361, Marian.
- Garaje marra bat alokatzen da, Caddie plazan, Atsobakar auzoan, zahar-etxearen parean. Zabala da eta sarbide eroso du. 659 021 945.
- Hernaniko Saretxo-Txiki golfa traspasatzen da. Aukera ona. 679 680 465.

Salerosketak

- Motorra salgai 49 zilindrada 6.400 km dauka eta 15 urte. Daelin Message eta istripurik gabekoa. 450 euro negoziagarriak. Nerea, 637 760 816.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanetarako. "Externa" eta orduka. 671 763 558
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048 Doris

Bestelakoak

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza eta DBH. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakiak, 943 376 888/646 645 445 (Maria).
- Ingleseko klaseak ematen dira, maila guztiak banaka zein taldeka. 693 601 222

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Hugo Macias Recondo, urriaren 10ean.
- Aday Batuecas Estevez, urriaren 8an.
- Maria Gil Niño, urriaren 7an.

Heriotzak

- Juan Ramon Carballo Manchado, urriaren 16an, 64 urte zituela.
- Manoli Arozena Mendizabal, urriaren 8an, 91 urte zituela.
- Jose Miguel Domingo Espeso, urriaren 5an, 71 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 21	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 22	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 23	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 24	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astearte, 25	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 26	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 27	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Ostirala, 28	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 29	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 30	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 31	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Astearte, 01	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 02	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 03	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa 1
Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea Eizagirre,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noniega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidier Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA

Ane Labakak Laboa Katedrako proiektu saria lortu du

'Bertsolaritzan garatutako umorea(k), genero ikuspegitik' lana osatuko du herritarrak

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Mikel Laboa Katedrak eskainitako hiru proiektu sariak badituzte onuradunak. Horietako bat, Ane Labaka Mayoz herritarra.

TXINTXARRI

Mikel Laboa Katedraren helburu nagusia da euskal arteari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzea. Honetarako euskal artea eta folklorea, musika, dantza eta bertsolaritzaren inguruko master-amaierako lanen proiektuak nahiz ikerketa-lan monografikoen proiektuak sustatzeko dirulaguntza du martxan.

Ane Labaka herritarrak 'Bertsolaritzan garatutako umorea(k), genero ikuspegitik' lana aurkeztu eta 2.000 euroko saria jasoko du bere lana osatzeko.

Herritarrarekin batera, Itziar Navarro Ibañez eta Xumai Murua Berra izan dira sarituak.

Lanen mailarekin gustura agertu da epaimahaia.

Motibazioa

Ane Labaka herritarra "oso



Ane Labaka herritarrak umorea, generoa eta bertsolaritza aztertuko ditu bere lanean.

pozik" agertu da sariarekin eta gizarte antropologiako masterrako azken proiektua garatzeko beste motibazio bat dela aipatu digu.

Lanari dagokionez, hasieratik argi zuen "bertsolaritza eta emakumea lotu nahi nituela. Aurreko lanak irakurri eta guztietan umorea aipatzen zen baina inork ez dio heldu gaiari. Beraz, nire aportazioa egiteko aukera ikusi nuen".

"Lanaren hipotesia bikoitza izango da. Batetik genero sistemak kultura arlo ezberdinetan erabiltzen den umorea markatzen duela aztertuko dut eta bestetik, bertsolaritzan emakumeek ezarritako sistema horri aurre egiteko umorea erabiltzen

duela. Ikuspegi orokor batetik hasi eta bertsolaritzara eraman-go dut gero", azaldu digu.

Lana dokumentatzeko elkarrizketak izango dira oinarrietako bat: "Aitziber Garmendia aktorea elkarrizketatu dut, baita ipuin kontalari bat ere. Aurrerago bertsolarien txanda izango da".

Gainera, ohiko bertso saio baten eta 'Ez da kasualitatea' moduko saioaren analisia ere egingo du hauetan erabiltzen den umorea konparatzeko asmoz.

Horregatik, Mintzola Ahozko Lantegiak bere lanerako eskaini ahal dizkion material eta baliabideak ere aipatu eta eskertu ditu.



IRAKURLE TXOKOA

Ikasturte hasiera ederra

Irakurle Txokoko kideek ikasturte honi hasiera eman zioten asteartean, Ttakunenean.

Lehenengo saioa berezia izan zen. Danele Sarriugarte azken hilabeteetan Irakurle Txokoko gidari izan denari agur beroa egin eta Uxue Alberdiri ongi etorria egin baitzioten mokadu baten inguruan.

Hori baino lehen, Ramon Saizarbitoriaren 'Lili eta biok' liburuaz aztertu zuten Danele eta Uxueren laguntzaz. Txokoko kideek liburuari buruzko haien iritzia eskaini zuten. Protagonisten arteko harremanak, bi garai ezberdinen nahasketak, gaixotasuna... gai ugari egon ziren mahai gainean. Istorioren amaiera ere izan zen mintzagai.

Hurrengo saioa, azaroaren 15ean izango da. Honetan Alaine Agirre idazlearekin 'X hil da' liburuaren nondik norakoak ezagutuko dituzte. Herritarrak gonbidatuak daude saioetara hurbiltzera.

AMARAUN KLUBA

'Gure familia!' ipuin irakurketa

Amaraun Kluba martxan jarriko da hurrengo astean. 2016-2017 ikasturteko honetako lehen saioa astelehenean 17:30etik 18:30era izango da Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan.

'Gure familia!' izenburupean HH3 eta HH4 mailetako haurrek familia eta hauetan jasotzen diren egoera ezberdinak landuko dituzte ipuinaren bidez. Gaia ulergarri egiteko asmakizunak, abestiak eta poesiak ere izango dira.

Saioa haur guztiei irekia eta doakoa da. Hala ere, antolatzailerak saioa hurbilduko diren haurrek aurrez izen-ematea eskertzen dute. Ttakun KE-ko bulegoan, aisia@ttakun.eus helbidean edo 943 371 448 telefono zenbakian egin daiteke izena ematea.

'Osasuna ez dago salgai'

Lehenengo larunbatean "Zuen negozioa, guztion minbizia eta ruina" lelopean, Erraustegiaren kontrako mugimenduak protesta-ekintza egin zuen Donostian.

Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformako kideak eta hainbat herritar ere izan ziren ekintzan.

Gipuzkoako Foru Aldunditik atera eta Santander Bankuaren egoitzaraino kalejira egin zuten. Bertan parte-hartzaileetako batzuk lurrean etzan ziren maindire zuria gainean zutela, gaixo egongo balira bezala.

Osasunaren kontura ez

Erraustegiaren kontrako Mugimenduak Ekintza honen bidez, bankuek eta enpresa handiek errauste plantaren eraikuntzarekin irabaziak izango dituztela salatu nahi izan zuten. "Irabazle bakarrik beraiek izango dira. Gaur egun Banco Santander



Santander Bankuaren egoitzan ekintza burutu zuen Erraustegiaren aurkako mugimenduak.

eta La Caixak milioika euro jasotzen dituzte hileroko-hileroko SWAPEi esker, bere garaian egindako mailegua erabili ez bada ere".

Errauste-planta ez eraikitzeke bere esku dagoen guztia egingo duela jakitera

eman zuen mugimenduak, "gure osasunaren kontura ez dira aberastuko!".

Eta mugimenduko kideek ez dutela finantzatu ere. "Jakin dezatela banku honetako zuzendariak gure diruarekin ez dutela kontaktzen".

Enplegu-dinamizatzailea behar du Udalak

Lasarte-Oriako Udalak enplegu-eskaintza bat plazaratu du enplegu-dinamizatzaile errefortzua 5 hilabetez kontratzeko.

Kontratazio honen baldintzak hauek dira: % 67ko lanaldia, astelehenean ostiralera eta 9:00etatik 13:51ra bitartean. Soldata gordina 1.510,84 euro izango da, eta lanean hasteko aurreikusitako eguna azaroaren 7a da.

Pertsona kontratatuak udalako dinamizatzailearekin elkarlanean hainbat arlotan egingo du lan, hala nola, enplegurako 2016ko ekintza lokalak, eskualdeko enplegu-planean oinarrituak, herriko enplegu-plana edo turismo lokalaren arloko proiektuak.

Baldintzak

Lanpostua eskuratu nahi dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: emakume langabetua, Lanbiden enplegu-eskatzailerak moduan inskribatua egotea eta gehienez 35

urte izatea; goi-mailako ikasketak unibertsitario amaituak eta ikasketek garapen lokalaren esparruarekin zerikusia izatea eta EGA titulua edo baliokidea izatea. Udalak ohartarazi duenez, maila egiaztatze proba egin ahal da.

Ez da beharrezkotzat jotzen eskaintako enpleguan edo tankerakoetan gutxienezko esperientzia bat izatea, baina esperientzia baloratu egingo da, baita antolamendurako, plangintzarako eta enpatiarako gaitasuna eta lanpostuarekin zerikusia duten aplikazio informatikoak maneiatzea ere.

Lehentasuna izango dute Lasarte-Orian edo eskualdeko udalerrietan erroldatutakoak.

Honetaz gain, elkarrizketa pertsonala egingo da hautaketa prozesuan.

Interesatuak Lanbiden eskatu dezakete informazio gehiago edo egin dezakete izen-ematea.

Bular minbiziaren eguna

Ganbo kalean arrosaz margotu zen banku bat aldarrikapen modura

Azokan postua jarri zuten Katxalineko ordezkariak eta bertan aritu ziren lazo arrosak banatzen eta euren lanaz hitz egiten. Udalak banku bat arrosaz margotzea erabaki du borroka honen adierazle izan dadin herrian urte osoan zehar.

TXINTXARRI

Bularreko minbiziaren kontrako nazioarteko eguna izan zen asteazkenean, urriak 19, eta herrian ere izan zuen isla. Azoka eguna izaki, Katxalin elkarteok postua jarri zuten honetan.

Goiz osoan egon ziren bertan. Lazo arrosak jarri zizkieten herritarrei, horretaz gain, elkartearen Gabonetako loteria saldu zuten eta asko izan ziren elkartearen lanerako jasotako ekarpen ekonomikoak.

Hauen hitzetan, "nabari da gizartea gaitz honekin sentsibilizatuta dagoela, ia herritar guztiak dute gaixotasun hau pairatu duen ezagunik".

Udalaren banku arrosa

Udaleko ordezkariak, Jesus Zaballós alkatea buru, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi eta teknikaria

Lourdes Acevedo eta Izaskun Oronoz eta Maite Iglesias Hezkuntza eta Kultura zinegotzia izan ziren egun honetako ekintzetan. Azokako postua bisitatzearaz gain, Ganbo kalean, Biyak Bat erretiratuen egoitzaren atzeko aldean, Katxalineko ordezkariekin batera arrosaz margotu zuten banku bat.

Azaldu zutenek ekimen berezi honen helburua da urte osoan zehar presente egotea gaixotasun honen aurkako borroka, "minbiziaren kontrako borrokaren aldeko keinu iraunkor gisa".

Alkateak adierazi zuen gune hori hainbat borrokari buruz kontzientziatzeko leku bihurtzea nahi duela: genero bortizkeria, HIESaren kontrako borroka edo gay, lesbiana, transexual, bisexual eta intersexualen eskubideen aldeko borroka. Horiek izango dira gune horretako ban-



Ganbo kalean margotu da bankua urte osoan zehar borroka honen adierazle izan dadin.

quetan progresiboki agertuz joango diren beste motiboak.

Lazo arrosa Udaletxean

Bestalde, borrokaren ikur bilakatu den lazo arrosa jarri zen Udaletxeko balkoiko buru egun honetan. "Borroka horretan pertsona eta instituzio guztiok inplikatu beharra daukagula gogorarazteko. Kontzientziatzea, prebentzioa, ikerketa dira borroka horretarako giltzarriak".



Karpan Katxalinekoek informazioa eman eta lazoak banatu zituzten.

Sortzaileentzat mugikortasun programa

Euskadi eta Akitaniako 24 gazte sortzaileentzat abiatu den mugikortasun programak sorkuntza ekosistema bat Euroeskualdean garatzen laguntzea du xede. Programa honi esker sortzaileei arreta handiena jarri ahalko zaie eta beraiekin topalekuak partekatu dira non sareak ehundu, ideiak konektatu eta beste tokiko-eskualdeko sorkuntza ekosistemaren arteko sinergiak ahalbidetuko dira.

2016-2017 bitartean 3 deialdi argitaratuko dira: lehenengoa, 2016ko urriaren; biga-

rena, 2017ko urtarrilean; eta hirugarrena, 2017ko apirilean. Indarrean dagoen deialdian hautatua ez den izangaiak hurrengo deialdian aurkezteko aukera izango du.

Programa honek sortzaileei 2-3 eguneko egonaldiak eta sorkuntza ekintzailtza sustatzen duten espazioetara bisitak eskainiko dizkie baita bere proiektuak hobetzeko lanabesak eskuratu, sormena eta berrikuntza freskatu eta ideiak garatzeko inspirazioa elikatu.

Programa honen onuradunak Akitanian edo Euskadin

errolatuta dauden sortzaileak izan daitezke, 40 urte beherakoak nagusiki.

Jarduera edo proiektua Ikus-arteak, Ikusentzunezkoak, Diseinua, Arte grafikoak, Teknologia berriak, Arkitektura, Artisautza, Moda eta Bitxigintzan aritzen direnek eskatu ahaliko dute, enpresa proiektu bat edo sorkuntza-ekintzailtza egitasmo bat abian izan behar dute. Eta gehenez eskabide bat aurkeztu ahaliko dute.

Oinarriak eta informazio gehiago *Bitamine.net* webgunean.

Kontsumo joerei buruzko ikastaroa azaroan Villa Mirentxun

Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiarako eta Lehiakortasunerako sailak abian jarri du "Negozio eredu berriak" prestakuntza-kanpaina. Honek egun merkataritza txikiak dituzten errotari erantzutea bilatzen du.

Lasarte-Oria prestakuntza saioa izango da azaroaren 7tik 11ra, 12 orduko iraupena edukiko du eta doakoa izango da.

Villa Mirentxun egingo da 14:00etatik 16:30era. Honetan parte hartzeko interesa dutenek aurretik izena eman

beharko dute Beterriko Merkataritzarako Bulego Teknikoan osteguna azaroaren 3a baino lehen edo 943 333 049 telefonora deituta.

Beharrezkoak diren datuei dagokionez, izen-abizenak, komertzioaren edo ostalaritza establezimenduaren izena, helbide elektronikoa edo telefono zenbakia zehaztu beharko dira.

Bestalde, nominaren goiburua, datu ekonomikorik gabe, edo Gizarte Segurantzako autonomo agiria aurkeztu beharko da ere.

zerbitzu mistoak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Orduetegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoak
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

BIDAIAK TALDEAN Abenduaren 3tik 8ra Lasarte-Oriatik

ISLANDIA
- Hegaldiak Bilbotik eta lekualdatzeak barne
- Urmael Urdina eta Secret Lagoon
- Laguntza espainiarazko gidarekin
Aurora borealak PC
1.940€

MUNICH
- Hegaldiak Bilbotik
- Aireportu-hotela-aireportu lekualdatzeak
- Hofbrauhaus jatetxean bertako afari Bavariarra
Gabonetako merkatuak
839€

GURUTZALDIA
- Hegaldiak Bilbotik eta barkura lekualdatzea barne
- Txangoak aukeran (bulegoan galdetu):
Sevilla, Cádiz, Jerez...
Guadalquivir ibaian zehar
891€

Azken lekuak!

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

Txikienen ikusmena zainduz

Multiópticas-en School Visual Test froga 5 eta 12 urte artekoentzat

Kale Nagusiko Multiópticas dendan haurrentzako froga bereziak egiten dituzte. Bertako profesionalak hauek egitea aholkatzen dute ikasturte hasieran. Konpromisorik gabe dira azterketak eta gogoratzen dute, haur askok ez dutela antzematen ikusmen arazoak dituztela hauek denboran luzatuz. 2015ean zabaldu zen denda gurean eta denbora honetan asko dira bertatik pasatako herritarrak.

Multiópticaseko dendan inolako konpromisorik gabe egiten zaie ikusmen azterketa umeei eta horrela, arazorik izanez gero, konpontzeko aukera egongo litzateke klaseen erritmoa galdu gabe.

Izan ere, optiko-optometristen Eskola Nazionalak eskaintako informazioaren arabera, umeen artean gertatzen diren eskola-porrota kasuen ia %30 dago nolabait lotuta ikusmen arazoekin. Ikerketek diote, orotara, haurren %25-%30ak ikusmen arazoak dituela.

Arazoak ekiditeko, ikasturte hasiera da umeari ikusmenaren urteroko azterketa egiteko sasoi egokiena Multiópticas dendako profesionalen ustetan.

Multiópticasen umek urrutitik ikusteko edo koloreak bereizteko arazoak dituen egiaztatzeaz gain, bi begiek elkarrekin eta banaka duten ikusmena aztertuko da. Era berean, School Visual Test deritzon proba egiten zaie (umeei zuzenduta dauden proba zehatzez osatuta

dago). Honakoa 5 eta 12 urte bitartekoentzat dago prestatuta.

Aholkuak

Gurasoek jakin behar dute umek ez direla euren ikusmen-arazoez kontziente eta, beraz, ez direla hauengatik kexatzen.

Horregatik, Multiópticaseko profesionalak sintoma batzuen zerrenda luzatzen dute. "Seme-alabek ondorengoak egiten badituzte, ikusmen azterketa egitea komeni zaiela esan behar da":

- Gertuko ikusmena eskatzen duten zereginak, irakurri edo etxeke lanak egitea adibidez, edo urrutikoak (kirola edo aisialdiko beste jarduera batzuk) ekiditen ditu.

- Irakurtzeko zailtasunak ditu: hizkiak edo hitzak aipatu ez edo nahasten ditu, atzamarra erabiltzen du irakurketan ez galtzeko, postura behartua hartzen du edo liburua gehiago gerturatzen du.

- Bekozkoa ilundu,



Idoia eta Onekak egingo diete harrera herriko dendara gerturatzen diren guztiei.

begiak kliskatu edo burua eta lepoa biratzen ditu urrutitik edo gertutik begiratu behar duenean.

- Sarri izaten du narradura begietan idatzi edo irakurtzerakoan eta betazalak sarri igurzten ditu.

- Buruko mina dauka.

- Erraz egiten du estropezu eta ez ditu distantziak ondo kalkulatu.

- Bere adinerako irakurmenaren ulermen baxua dauka.

"Etor zaitez Kale Nagusiko Multiópticas-era eta inolako konpromisorik gabe egingo dugu azterketa!".



Haurrentzako betaurreko bilduma dotorea dago.

Lasarteoriatarren zerbitzura


Multiópticas denda Kale Nagusian 2015eko otsailaren amaieran zabaldu zen. Orduetik asko dira bertatik pasa diren herritarrak. Izan ere, Mó etxeke betaurreko markaz gain, diseinatzaile eta marka ezagunen azken betaurreko bildumak aurki daitezke.

Betaurreko denda ezagunak kalitatea du ikur eta oinarri. Begi azterketak egiteko puntako teknologia erabiltzen duten makinak eta tresneria dute eta horretaz gain, lentsan ere merkaturatu dauden berrienak eskaintzen ditu.

Begien osasuna da Multiópticaseko helburua eta hau zein den ezagutzeko azterketa sakonak eskaintzen ditu. Ordu erdi inguruko azterketak dira bezeroei egiten zaizkien konpromisorik gabe. Hauetan begiaren osasunari erreparatu zaio modu zabalean.

Kataratak, begi fondo edota tentsio okularra zein den begiratzen da besteak beste.

Azterketa hau egiteko aurrez txanda hartu behar da dendatik pasata edota telefonoz 943 377 455 zenbakira deituta.



Hau osatuta, bezeroak zein behar dituen aztertu ostean, laguntza ere izango

du betaurrekoak hautatzeko garaian. Profesionalen aholkularitaz gain, makina batek

bezeroari argazkia egin eta betaurreko mota aukeratzeko laguntzen du.

LABURRAK.-

ISUren berdinketa eta Ostadarren porrotak

Iragan asteko jardunaldia ez zen izan onena herriko areto-futbol talde federatuentzat. Gipuzkoako 1go mailan ari den ISU Leihoeak besterik ez zuen lortu punturen bat poltsikoratzea.

Eneko Molinaren taldearen erronka ez zen erraza: ordura arte ligako liderra zen Mondraterekin neurtu zituzten indarrak. Arauzko 60 minutuak jokatu-ta, bina berdindu zuten bi taldeek. Etxekoak golak Unai Iruarte eta Eric Utiel sartu zituzten, biak lehenengo zatian. Lau jardunaldi jokatu-ta, sei puntu poltsikoratu ditu ISU Leihoeak. Kategoria berean ari den Cecilia Kebab Lasarte Ostadarrek berriz, 5-4 galdu zuen The Nest Hirukideren aurka.



Gainontzeko emaitzak: Ostadar Antonio Aroztegia 3-6 Precision Break (3. maila); Goierri 5-2 Buenetxea Ostadar (Jubenilak); eta Kafe Bar Lasarte Ostadar 4-5 Laskorain KE (Jubenilak).

Bana berdindu zuen Realak Espanyolen aurka

Iraia Iparragirre herritarrak hasieratik jokatu zuen iragan igandean, Iberdrola Ligako 7. jardunaldian. 66. minutuan aldaketa eskatu behar izan zuen, belaunean min hartu zuelako. Kontatu digunez, ligamentua ukituta dauka, baina laster hasiko da berriro entrenatzen. Realak Espanyolen kontra jokatu zuen, eta bana berdindu. Manu Lareok sartu zuen talde donostiarraren gola, lehen zatiaren hasieran. Txuri-urdinek ezin izan zuten abantailari eutsi, eta Espanyolek banakoa sartu zuen bost minutu faltan. Saillkapenean bederatzigarren postuan da Realak, 6 punturekin.

Aukerarik ez Taintaren aurka (22-5)

Promozioko lau t'erdiko txapelketari ekin dio Arteaga II.ak. Ez modu onenean, ordea: Iker Taintarekin neurtu zituen indarrak pasa den larunbatean, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Herritar gazteari ez zion inolako aukerarik eman pilotari nafarrak, eta 22-5 hartu zuen mendean. Bestalde, Gipuzkoako 1go mailako Intza KEk 22-12 galdu zuen Lazkaoko LAPKEren aurka.

Harrobiko Beltzak taldeak, primeran

Senior taldeek ez zuten jokatu asteburuan, baina harrobiko taldeek bai. Ederki, gainera: 14 urtez azpikoak Eibarren aritu ziren. Bertan jokatuak 'Rugby Seven' txapelketa irabazi zuten, parte hartzaile guztiak mendean hartuta: La Riojaren bi talde, Gaztediren beste bi, Ordizia eta Eibar. 18 eta 16 urtez azpiko Gure Etxea Beltzak taldeek Zarauzko Asti zelaian jokatu zuten joan den larunbatean, Iruña RCren aurka. 125-0 eta 129-0 irabazi zuten. Asteburuko neurketak: UBU Aparejadores - Babyauto Zarautz (Ohorezko B maila, bihar 17:00etan); Eibar RT - Gure Etxea Beltzak (18 urtez azpikoak, bihar 11:00etan); Eibar RT - Gure Etxea Beltzak (16 urtez azpikoak, bihar 12:15ean).

MENDI LASTERKETAK.-

Beñat Los Arcos, BKT ligako lider

Trail laburreko saillkapeneko buruan da, 2.963 punturekin

Bizkaia Kopa Trail ligak zortzi jardunaldi ditu. Sei jokatu dira honezkeroko, eta trail laburreko saillkapeneko liderra lasarteoriatarra da: Beñat Los Arcos. Jokatuak proba denetan sartu da lehenengo hamarren artean. "Erregularitasuna da lider egotearen arrazoia", dio.

IÑIGO GONZALEZ

Urte hasieran ez nuen sinetsi ere egingo. Jakin nuenean, izugarriko poza hartu nuen". Beñat Los Arcos herritarraren hitzak dira, trail laburreko (10 kilometro) BKT Bizkaia Kopa Trail ligako saillkapen orokorreko liderrarenak. Zortzi probako txapelketa da; orain arte sei jokatu dira. Horietan guztietan lehenengo hamarren artean saillkatu da herritarra. Erregularra izateak eraman du lider izatera, lasterkariak aipatzen duenez.

Okerren zetorkion proban eskuratu zuen lidertza herritarrak: Lekeition joan den astean jokatuakoa. "Asfalto gehiegi eta aldapa gutxi zituen ibilbideak, baina den-dena eman nuen eta lidertza eskuratzeko beharrezko karanbola lortu: buruan zihoanak sei puntu ateratzen zizkidan, eta bakarra bigarrenak. Probako aldapa bakarretako batean hiru lasterkari pasa nituen, eta alde hori berreskuratu. Guztien denborak batu zituzten erabakitzeke lider-



Lekeition eskuratu zuen BKT ligako lidertza Beñat Los Arcosek.

ANNE ARBELAITZ

tza nori eman; jokatuak sei proben ostean, minutu bat gutxiago neukan nik".

Beñaten helburua

Herritarrak kontatzen digunez, bukaerara arte ezingo du lidertza mantendu: "Zortzi lasterketa dira denera, baina sei onenetako puntuak hartzen dira saillkapenerako. Orain arte emaitza txarren bat edo probaren bat egin ez duten batzuk badaude, baina gainontzekoetan nik baino hobeak dituzte. Beraz, hiruzpalau korrikalarik pasako naute bukaeran. Dena den, ni oso lehiakorra naiz, eta aurreneko bosten artean saillkatu nahi dut. Urte hasieratik beste helburu bat ere badauk: proba guztiak lehenengo hamarren artean bukatzea; orain arte, primeran goaz".

Liga bukatzeko bi lasterketa falta dira: Zamudiokoa aza-

roan eta Dimakoa abenduan. "Disfrutazera joango naiz, beti bezala, hori garbi daukat. Zamudion lider gisara ateratzea izugarria izango da, horretaz gozatu nahi dut", zehazten du. Liderra izatearen erakusgarri den kamiseta gorria eramango du soinean azaroan.

Herritarrak Hiru Haundiak proba jokatzeko

Gorbeia, Anboto eta Aizkorri mendiak zeharkatu, 100 kilometro luze eduki eta 5.126 metroko desnibel positibo metatua duen Hiru Haundiak mendi lasterketa jokatu zuten Iñaki Letamendi eta Javi Olazagoitia herritarrek pasa den asteburuan.

Olazagoitia 110. izan zen saillkapen orokorrean, 15 ordu eta 23 minutuko denbora egin da. Letamendi 495. postuan iritsi zen, erlojua 19 ordu eta 35 minututan geratuta.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Ostirala 21

Harane, Usurbil, 19:30ean

Usurbil FT - Ostadar SKT

Jubenilen 1go maila,

6. jardunaldia.

Larunbata 22

Fandera, Orereta, 12:30ean

Touring CD - Ostadar SKT

Kadeteen Ohorezko maila, 6. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra - Mundarro

Erregionalen 1go maila,

6. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Oiartzun KE

Erregionalen Ohorezko maila,

7. jardunaldia.

Don Bosco, Orereta, 18:00etan

Pasaia KE - Ostadar SKT

Jubenilen Ohorezko maila, 6. jardunaldia.

Urmieta, 18:30ean

Urmieta KE - Ostadar SKT

Emakumezkoen Lurralde maila,

5. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol Txapelketa

Ostirala 21

Kirol gunea, 19:45ean

Trumoi Taberna - Ilargi Taberna

Kirol gunea, 20:45ean

Urdaneta HK - Also Taberna

Elorsoro kiroldegia, Oiartzun, 20:30ean

Power Rangers - ISU Leihoeak

Gipuzkoako 1go maila, 5. jardunaldia.

Larunbata 22

Kirol gunea, 09:30ean

Kattagorri Insausti - Kebab Taberna

Kirol gunea, 10:30ean

Izkiña Taberna - Txoko Taberna

Kirol gunea, 11:30ean

Indaux - Ibaros Latino

Kirol gunea, 12:30ean

Reformas Lagunak - Aita Amari

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Buenetxea Ostadar - Aldapeta

Gipuzkoako jubenilak, 2. jardunaldia.

Marianistas, Donostia, 13:00etan

Aldapeta - Kafe Bar Lasarte Ostadar

Gipuzkoako jubenilak, 2. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Cecilia Ostadar - Egarrri Taberna

Gipuzkoako 1go maila, 5. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, Muskiz, 16:15ean

Muskiz - Ostadar Antonio Aroztegia

3. Nazional maila, 6. jardunaldia.

SASKIBALOA

Ostirala 21

Kiroldegia, 20:30ean

Ostadar SKT - Mondragon

Senior gizonetzkoen 3. probintziala,

Federazio Kopa, 3. jardunaldia.

Larunbata 22

Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar SKT - Askatuak

Junior errendimendua, A1 liga,

6. jardunaldia.

Aiete kiroldegia, Donostia, 18:00etan

Atletico SS - Ostadar SKT

Junior Errendimendua, A2 liga, 2. jard.

Igandea 23

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Askatuak

Senior emakumezkoak, 3. jardunaldia.

PILOTA

Larunbata 22

Agustina Otaola, Orereta, 10:00etan

EPLA - Intza KE

3. mailako seniorrak, 5. jardunaldia.

Michelingo frontoia, 16:00etatik aurrera

Intza KE - Aurrera Tolosa

1go mailako seniorrak, 6. jardunaldia.

Arratsaldeko laugarren partida da.

Igandea 23

Beotibar pilotalekua, Tolosa, 17:45ean

Arteaga II - Ugalde

Promozioko lau t'erdikoa, 2. jard.

Agenda

Larunbata eta igandea, Okendo plaza



Euskararen jaialdi handia

Bihar goizeko 8:00etan hasi eta igande gauean amaituko da Euskararen 9. Maratoia. Ikuskizunak, lehiaketak, haurrentzako jokoak, otorduak... Okendo plazan ekintzek ez dute etenik izango. Herriko elkarte, erakunde eta eragileak oholntza gainean edo laguntzaile modura parte hartuko dute. Guztia zortzikote berezi batek zuzendurik: Agus

Mujika, Rebeka Garzes, Joxe Mari Agirretxe, Enara Ieregi, Joxe Mari Azkonobieta, Estitxu Garmendia, Mikel Izquierdo eta Oihana Fu Otaegi. Aurten gainera, bi oholntza ezberdin izango dira eta 40 eguneko erronkaren hasiera ekitaldia ere egingo da. Jai giroa nagusi izango da eta euskara eta lasarteoriatarak armaitutik irtengo dira.

Lasarte-Oria

Ipuin-kontalaria

HAUR LIBURUTEGIA

Asteartea 25, 18:00etan

KontuKantoik ipuin eta kontakizun saioa eskainiko du. 6 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua dago.



Berdintasun taldea

GAZTELEKUA

Asteazkena 26, 18:00etan.

Neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatzeko gazte talde bat osatu nahi da Lasarte-Orian. Ekimen berri honek belaunaldi berrien artean gizartearen errotuta dauden zenbait estereotipo aztertu, landu eta ezabatzea du helburu. Parte hartzea irekia da.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 25, 18:00ean

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako kideen laguntzaz antolatuta, AGIFES ek 'Buru osasuna eta emakumea. Ahal-duntze bidean' hitzaldia eskainiko du.

Liburu aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 27, 19:00etan

Lasarte-Oriako historia oinarri duen 'Retazos II' liburuaren aurkezpena. Jose Luis Navarrok "Lasarte-Oriari buruzko dokumentu interesgarriak" aurkeztuko ditu.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 28, 22:00etan

Okendo zinema taldearen eskutik, 'Al final del túnel' filma aztertuko dute zine forum sailean. Sarrera, 5,50 euro.

Igandea 30, 17:00etan

Haurren zinea atalean, 'Mi amigo el gigante' animaziozko filmaz gozatuko dute txikiak. Sarrera, 3,80 euro.



Igandea 30, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Tarde para la ira' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Urriaren 21etik 29ra

Lasarte-Oriako toponimiari buruzko erakusketa ikusgai izango da.



Usurbil

Solasaldia

POTXOENEA

Gaur, ostirala, 18:00etan

Patxi Izagirre psikologoa eta doluan adituak 'Dolua; Heriotzean ere haurrak partaide. Heriotzaren pedagogia eraiki behar dugu' hitzaldia eskainiko du.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, urriaren 31an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

1955eko kintoen afaria

1955ean jaiotakoek kinto afaria ospatuko dute azaroaren 19an, 21:00tan, Goiegi jatetxean.

Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko deitu zenbaki hauetara: 678 90 34 99 (Bego) eta 627 70 12 41 (Asun)

1963. urtean jaiotakoek afaria

Aurten ere 1963. urtean jaiotakoek kinto afaria egingo dute. Honako honetan, 'El Jardín' jatetxean, lehen 'Txitxardin Beltza' zen jatetxean antolatuta dute, azaroaren 19an, 21:00etan.

Aurretik, 20:00etan, Okendo plazan bilduko dira potetxo bat edo bi hartzeko asmoarekin.

40 euro izango da afaria, DJ eta guzti. Laboral Kutxako zenbaki hone-

tan egin behar da diru sarrera, ES 36 3035 0036110361136871.

Neguko ordutegia kiroldegian

Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandean berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsalde egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahal dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Eskutitza

Aspaldi irten behar genuen

Armairitutik, noski. Hori baita aurtengo maratoiaren erronka.

Orain kontatuko dudun pasadizoak, gezurra dirudi, baina benetako egia da, bai horixe.

Nik euskara etxean ikasi nuen txikitik. Nire gurasoak euskaldunak dira. Beti hitz egiten genuen euskaraz, etxean.

Nire betiko laguna ere berdin, guraso euskaldunekin, eta beti euskaraz, etxean.

Kalera jaisten ginenean jolastera, beti erdaraz. Beti.

Escolan elkarrekin ibili ginen hamalau urtera arte. Han ere erdaraz egiten genuen. Beti.

Gaztetxoak ginela, asko ibiliak gara elkarrekin. Oskorriren kontzertuak ikusten ere bai. Orduan ere bai, beti, erdaraz.

Oso zaila da gaur egun, gure portaera hura ulertzea. Baino guretzako munduko gauzarik normalena zen. EGAREN azterketa prestatzen eta nire euskaldun lagunarekin, erdaraz hitz egiten. Mundu xelebrea.

Horrela gabiltzala, Irungo Kilometroetara joan ginen. 1988. urtean, hogeita bat urterekin. Eta han gertatu zen miraria. Ni, orduko eskolako lagun batzuekin topatu nintzen. Bertsolariak ziren eta euskaraz hitz egin nuen beraiekin. Hori nire betiko lagunaren aurrean. Pixka bat jarraitu genuen Kilometroetako ibilbidean, isilik, pentsatzen.

Eta momentu batean hizketan hasi ginen, eta bietako batek esan zuen, besteak buruan zeukana: "Hi, ze iruditzen zaik hemendik aurrera euskaraz hitz egiten badiagu?".

Orduz geroztik beti aritzen gara euskaraz, noski, eta jende gehiagorekin gaudelako, nire laguna erdaraz hitz egiten entzuten dudun bakoitzean, arraroa iruditzen zait.

Ez al da egia, Luis Mari?

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus

Jokin Goenaga

Ekintzaz beteriko Euskararen Maratoia

Jaiak eztanda egin eta Okendo plazan ez da etenik izango

Lasarte-Orian euskara izango da protagonista asteburu honetan. Euskararen 9. Maratoiak Okendo plaza eta herri-tarrak jai giroan murgilduko ditu. Antzerkiak, dantzak, arropa desfileak, musika emanaldiak... denetarik izango da oholta nagusian. Oholtza txikian, berriz, 40 egunetako erronkaren inguruko ekintzak egingo dira. Hainbat ekitaldietan plaza bor-bor egotea espero dute antolatzaileek.

TXINTXARRI

Euskararen 9. Maratoia ekintzaz lepo dator. Lehengo astean argitaratu genuen TXINTXARRI berezian hainbat ekintza, berrikuntza edo ekimen nabarmendu genituen, baina badira beste batzuk ere.

Kultura Hiriburutza

Larunbatean, bazkalorduan, Lasarte-Oria Munduko Kultura hiriburu izendatuko dute eta horretarako nazioarteko gonbidatu bereziak izango dira Okendo plazan.

Zortzikoteak ongi etorri eta aurkezpen ofizialak egin ostean, hiriburutzari hasiera emango zaio.

Ohorezko lekuan paella gozoa dastatuko dute gonbidatuak eta bazkal ostean, antolatzaileek aurreratu dutenez, ekintza bereziak egingo dituzte zortzikoteko kideek gidatuta.

Haur bataioa

Eta ongi etorriekin jarraituz, igande arratsaldean, lau urte

hauetan jaio diren hurrek harrera beroa izango dute.

Jaiotako urtearen arabera, lau talde ezberdinetan banaturik 'Xalala Riki Riki', 'Han zeunden', 'Tope Tomatxa' edo 'Txiki-txikia' dantzatu dute etxeko txiki eta haien guraso eta familiek.

Porrotx pailazo bihurria eta zortzikoteko kideak lagun izango dituzte oholtzara igotzen diren lagunak.

Amaieran, Okendo plaza hurbiltzen diren laguntxoei oroigarri berezi bat emango zaie.

Horregatik, antolakuntzak urte hauetan guztietan jaio diren haur eta gurasoei plaza hurbildu eta dantzeekin gorputza mugitzera gonbidatzen ditu.

EuskOskar gaua

Igande afalostean, EuskOskarren gaua berezia izango da. Donostiako Zinemaldian lez, glamourrez beteko da Okendo plaza.

Zortzikoteak Lasarte-Orian euskararen alde egindako lanarengatik hainbat elkarte



Duela lau urteko Maratoian ezkontza berezia izan zen. Aurten Kultura hiriburutza izendapena eta EuskOskar gaua izango dira.

edo eragileri Oskar sariak eskainiko dizkie.

Sari-banaketa ekitaldi berezi honetan ezusteko ugari eta umorea nagusi izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Esate baterako, hautagai eta irabazleak igandera arte, giltzapean egongo diren gutun-azal batzuetan dituzte idatziak. Nortzuk izango ote dira?

Erronkan izen-ematea

Ekitaldiez gain, aurten I-gunea izango da Okendo plazan.

Euskararen 9. Maratoia honetako eta, batez ere, igan-

dean arratsaldean hasiko den 40 eguneko erronkaren informazioa eskuratzeko puntua izango da honakoa.

Azalean azaldu moduan, oraindik erronkan izena eman ez duten herritarrek bertan izango dute Ahobizi edo Belarriprest izateko aukera.

Materiala eta otorduetako txartelak

Baina informazioa edo izena emateaz gain, bertan Euskararen 9. Maratoiko kamisetak, kirol-jertseak eta poltsak eskuragarri izango dira.

Haurren kamisetek 10 euro balio dituzte, helduen kamisetek 12 euro, kirol-jertseak 20 euro eta poltsak 6 euro.

Era berean, azken orduan otorduren batera joatea erabakitzen duten herritarrek I-gunean bertan erosi ahalko dituzte txartelak.

Paella, sorgin afaria, babarrunak bere sakramentu guztiekin edo txekor errea... ederki gozatuko dute Okendo plazan bazkaldu edo afaltzen duten herritarrek.

Umeen paella-janeko tike-tak 3 euro balio dituzte, helduen menua berriz, 8 euro dira. Sorgin Afariko txartelak 20 euroko kostua dute. Babarrun janak 8 euro balio ditu eta txekor erreak, aldiz, 10 euro.

Herritarren parte hartzea

Lasarte-Oriako herritarrek Euskararen Maratoian era

askotara parte hartuko dute. Okendo plaza jendez beteko da.

Baina Euskararen Maratoiko antolatzaileek sare soziale-tan ere plazako jai giroaren isla egon dadila nahi dute. Horregatik, herritarrei Maratoiko ekintzetan ateratako argazkiak partekatzeko deia egiten diete.

Horretarako, twitterrean #40ordu hastag-a erabiltzeko eskatu dute antolatzaileek. Gainera, @EusMaratoia itsatsiz gero, Euskararen Maratoiko twitter kontuan ere argitaratuko dira mezu eta argazkiak.

Euskararen 9. Maratoia facebook orrialdea argazki betetzeko, berriz, @EusMaratoia erabiltzeko eskaera egin dute.

Jarraipen berezia

Bestalde, TXINTXARRI aldiriak asteburuko ekintzen jarraipen berezia egingo du.

Euskararen 9. Maratoiko hasiera ekitaldia, larunbata 8:00etan, eta amaiera ekitaldia, 21:45etik aurrera, etxetik streaming bidez ikusteko aukera izango dute plazara hurbildu ezin direnek.

Honez gain, ekintzen argazki eta bideoak asteburuan zehar izango dira herritarren eskura txintxarri.eus orrialdean.

Eta astelehenean Euskararen 9. Maratoiko errepasoa eginenez zenbaki berezia izango da lasarteoriarren postontzietan.



8. Maratoian lehenengoz, maratoien artean jaiotako haurrei ongi etorria egin zitzaizen. Aurten ere, igande arratsaldean izango da tartea.

Euskararen 9. Maratoia

Informazio guztia, argazkiak eta bideoak txintxarri.eus orrialdean izango dituzue eskuragarri.